

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

Proiektuaren garapenean funtsezkoak dira birziklatze- eta hondakin-kudeaketa enpresak, prozesuak eraginkorrak eta jasangarriak izan daitezen laguntzen baitute. Tokiko gobernuek eta ingurumen-erakundeek araudiak eta babes instituzionala eskaintzen dituzte, proiektuaren sustapena indartuz.

Unibertsitateak eta hezkuntza-erakundeek ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza akademikoaren bidez laguntzen dute, teknologia-hornitzaileekin elkarlanean prozesuak hobetzen dituzten moduan, birziklapen edukiontziak ere gizartean positiboki eragiten dute, ingurumena zaintzen eta baliabideak modu eraginkorrean berrerabiliz eta hondakinen murrizketan, energia aurreztean eta baliabideak berrerabiltzean laguntzen dute. Halaber, marka ekologikoek eta babesleek baliabide ekonomikoak eta babes soziala ematen dute.

GKEak eta komunitate-taldeak funtsezkoak dira kontzientziazioa eta gizarte-inplikazioa bultzatzeko, gure proiektuaren helburuak zabaltzen eta herritarrek inplikatzeko. Haien esperientzia eta lanaren bidez, gizartean ingurumenaren zaintzaren garrantziaz ohartarazten dute, eta horrek proiektuaren onarpena eta parte-hartzea handitzen lagun dezake.

Bestalde, kooperatiba-bazkideek baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen laguntzen dute. Bazkideek elkarlanean lan egiten dute eta baliabideak partekatuz proiektua sendotzen dute, jasangarritasunaren eta efizientziaren arloetan laguntzeko.

